

Gipuzkoako Entomologia Elkarte  
Asociación Gipuzkoana de Entomología

# Heteropterus

Nº 16 Zkia. - Julio 2006 Uztaila





*En el Centro de Investigación  
Biotecnológica del Reino Unido  
han comprobado que los mosquitos  
no pican a ciertas personas porque éstas  
enmascaran el olor por otro que las repele.*




**SE HA CALCULADO QUE  
CADA ABEJA DEBE  
VISITAR UNAS 4000 FLORES  
PARA PODER PRODUCIR UNA  
CUCHARADA DE MIEL.**

**En Nuevo México se ha  
descubierto que las  
hormigas conocen la  
ingeniería genética.  
Las reinas copulan con  
machos de otra especie  
con el objetivo de criar  
trabajadores híbridos.**

**LA ARAÑA  
MÁS GRANDE  
ES LA  
NIGALE DE  
LEBLONDI,  
QUE PUEDE  
ALCANZAR  
EL TAMAÑO  
DE UN PLATO.**

Leonardo Da Vinci  
llegó a experimentar  
con insectos pulverizados  
para obtener sus colores.



**Argitaratzailea / Edita:**

Gipuzkoako Entomologia  
Elkartea - Asociación  
Gipuzkoana de Entomología

**Lege-gordailua / Depósito  
legal:**

SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

**Erredakzio taldea /  
Comité de redacción:**

Pedro Ayerbe  
Mónica Menéndez  
Arantza Oyarbide  
Faustino Uranga  
Imanol Zabalegui

**Azalaren diseinua / Diseño de  
la portada:**

Faustino Uranga

**Azaleko argazkia / Fotografía  
de la portada:**

Chrysomelidae  
Faustino Uranga

Dohainikako argitalpena bazkide,  
Gipuzkoako Eskola eta Udale-  
txeentzat / Publicación gratuita  
para los socios, Colegios y  
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

**HETEROPTERUS**

Egoitza soziala / Sede social:  
OIARTZUN (Gipuzkoa)

Gutunak helbide honetara bidali  
behar dira / Toda la correspon-  
dencia debe enviarse a:

**HETEROPTERUS**

Apdo. 193 P.K.  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
☎ 943 331 300  
✉ heteropterus@teleline.es

Nº 16 Zkia. • Julio 2006 Uztaila

# HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA  
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

## AURKIBIDEA – INDICE

|   | <u>Orr. / Pág.</u> |
|---|--------------------|
| <b>Editoriala / Editorial</b> .....   | 4                  |
| <b>Aiako Harria Parke Naturaleko<br/>Entomofauna<br/>del Parque Natural de Aiako Harria</b> ... | 5-6                |
| <b>2. Gertakari gastroentomologikoa Hernanin/<br/>2º Evento gastroentomológico en Hernani</b>   | 7-10               |
| Pablo Bahillo de la Puebla  |                    |
| <b>Gipuzkoako intsektuak / Insectos de<br/>Gipuzkoa</b> .....                                   | 11-22              |
| <b>Entomologoen bilera transpirenaikoa/<br/>Reunión transpirenaica de entomólogos</b>           | 23                 |
| <b>Intsektuak musikan/<br/>Los Insectos en la música</b> .....                                  | 24-27              |
| Faustino Uranga   |                    |
| <b>Hemeroteka</b> .....   | 28-29              |
| <b>Intsektuekin jolasean / Jugando<br/>con los insectos</b> .....                               | 30                 |
| Faustino Uranga   |                    |

## EDITORIALA - EDITORIAL

Oso atsegingarria da zenbaki honen editoriala **zientziarako berria** den espezie baten aurkikuntzaren albistearekin hastea. **Mayetia amicorum** izena du intsektu honek eta gure elkarteko kide den Carles Hernandok aurkitu du Aiako Harriako Parke Naturalean, hain zuzen ere Oiarzungo baso batean.

Aurkikuntza honek asko poztu gaitu, azkeneko urte hauetan Aiako Harriari aurrera daramagun proiektuak Gipuzkoako Entomologia Elkartearen handitzeko eta sendotzeko balio izan baitigu.

Es un placer comenzar la editorial de este número de la revista con la noticia del descubrimiento de una **nueva especie para la ciencia**. Se trata del escarabajo **Mayetia amicorum**, encontrado en un bosque de Oiarzun en el Parque Natural de Aiako Harria por nuestro socio Carles Hernando.

Este hallazgo nos ha dado especial alegría ya que el proyecto que estamos llevando adelante durante estos años en dicho Parque Natural, ha contribuido muy directamente en el crecimiento y la consolidación de la Asociación Gipuzkoana de Entomología.

Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos.....  
.....  
Helbidea / Dirección.....  
Herria / Localidad.....KP / CP.....

Bazkide / Socio: 15 euro urteko / anuales  
Bazkide gaztea / Socio juvenil: 12 euro urteko / anuales  
(Para el extranjero 3 euros más / Atzerrirako 3 euro gehiago)

### “HETEROPTERUS”

**Gipuzkoako Entomologia Elkarte -  
Asociación Gipuzkoana de Entomología**

Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

☎ 943 331 300

💻 heteropterus@teleline.es

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak. / Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

# AIAKO HARRIA Parke Naturaleko Entomofauna del Parque Natural de AIAKO HARRIA

2006ko uztailaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundian prentsaurrekoa eman genuen Aiako Harria Parke Naturaleko Entomofauna (2000-2004) proiektua aurkezteko.

*Mayetia amicorum* intsektuaren aurkikuntzak bereganatu zituen izenburu guztiak, eta esan beharra dago, egun horretan, bertako telebista eta irratiek berri hori zabaldu zutela eta baita hurrengo eguneko egunkariak ere (Gara, Deia, Noticias de Gipuzkoa, Berria, El Diario Vasco, etab.), batzuek orri osoa eskaini ziotelarik.

Proiektuak, Heteropteruseko 5. alean (2001) aurreratu genuen bezala, 5 urteko iraupena izan du eta honako erakunde hauen laguntzari esker atera dugu aurrera: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia, Errenteria, Hernani, Irun eta Oiartzungo udalak.

Txostenean intsektuei buruzko 500 fitxa individual agertzen dira, hauek 93 familietan eta 13 ordenetan banatuta. Fitxa

El día 3 de julio de 2006 se celebró la rueda de prensa en la Diputación Foral de Gipuzkoa para la presentación del informe del proyecto Entomofauna del Parque Natural de Aiako Harria (2000-2004).



Foto: J. Zabalegui


Ikerketaren aurkezpeneko argazkia. Ezkerretik, J.M<sup>a</sup> Aldanondo (Gune Naturalen Zuzendaria), Rafael Uribarren (Landa Eremuaren Garapenerako Diputatua) eta Xanti Pagola eta Imanol Zabalegi (Gipuzkoako Entomologia Elkarteko kideak).

La importancia del hallazgo de *Mayetia amicorum* acaparó los titulares y tenemos que decir que tanto las televisiones locales como las emisoras de radio de ese día se hicieron eco de la noticia y por supuesto los periódicos del día siguiente dedicaron algu-


nos incluso una página entera a la noticia (Gara, Deia, Noticias de Gipuzkoa, Berria, El Diario Vasco, etc.)

El proyecto, tal como adelantábamos en Heteropterus nº5 (2001), ha tenido una duración de 5 años y ha contado con la ayuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Ayuntamientos de Donostia, Errenteria, Hernani, Irún y Oiartzun.

En el informe se incluyen 500 fichas individuales de insectos pertenecientes a 93 familias y 13 órdenes. En cada ficha se incluye una fotografía del insecto junto



*Mayetia amicorum* Hernando, 2005  
espezie berria / nueva especie



Xstosteneko 500 fitxetako bat  
Una muestra de las 500 fichas del informe

bakoitzean intsektuaren argazkia ager-tzen da, hedatze mapa batekin batera; baita intsektuaren deskribapena, bere biologiari buruzko datuak eta maiztasun-ugaritasunari buruzko gutxi gorabeherako balorazioa ere.

Nabarmendu behar da 3 espezie babestu ikuskatu direla: *Lucanus cervus*, *Cerambyx cerdo* eta *Rosalia alpina*.

Azpitarratzekoa da, baita ere, oraingoz 22 espezie aurkitu ditugula, lehenengo aldiz, Euskal Autonomi Erkidegoan eta hauetako 5 Iberiar Penintsulan.


Lerro hauek idazten ditugun momentuan, badirudi Aiako Harriako Parke Naturaleko intsektuak ikertzeko proiektuak jarraipena izango duela.

con un mapa de distribución y se comple-ta con información de la descripción, datos de su biología y una valoración aproximada de su frecuencia-abundancia.


Cabe señalar que se han registrado 3 especies protegidas: *Lucanus cervus*, *Cerambyx cerdo* y *Rosalia alpina*.

También destacar que se han confirmado de momento 22 especies cuyas capturas constituyen la primera cita para la CAV y de las cuales 5 lo son también para la Península Ibérica.


A la hora de escribir estas líneas parece ser que el estudio de los insectos del Parque Natural de Aiako Harria tendrá continuación en una segunda fase.



*Lucanus cervus*



*Rosalia alpina*



*Cerambyx cerdo*

## 2. GERTAKARI GASTROENTOMOLOGIKOA HERNANIN

### 2º EVENTO GASTROENTOMOLÓGICO EN HERNANI

Pablo Bahillo de la Puebla

2006ko martxoaren 11n, Gipuzkoako Entomologia Elkartearen deialdiari erantzunez, berriro ere Ugaldetxo Jatetxean (Hernanitik Goizuetara doan bideko 8,5 kilometroan) bildu ginen lagun talde bat intsektuen zaletasunak elkartuta.

El pasado sábado 11 de marzo de 2006, atendiendo a la convocatoria realizada desde la Asociación Guipuzcoana de Entomología, nos volvimos a juntar en el restaurante Ugaldetxo (Km 8,5 de la carretera que une Hernani con Goizueta) varios amigos con los insectos como nexos de unión.



Goian, zutik eta ezkeretik eskuinera / Arriba, de pie y de izquierda a derecha: Juan Antonio Soto, Ismael Sarabia, Iñaki Alonso, Pablo Bahillo, Iñigo Ugarte, Ignacio Ribera eta Pedro Aguilera.

Eserita / Sentados: Ignacio Recalde, Manuel Aguirresarobe, Fernando Carasa, Fernando Salgueira, Mónica Menendez, Arantza Oyarbide, Ali Cieslak eta Bernat Ribera.

Lurrean eserita / Sentados en el suelo: Santiago Pagola, Faustino Uranga, Carles Hernando eta Imanol Zabalegui.

Jatetxean lehengo urtean jaso genituen sentrazio onek oraindik irauten zuten eta, haiek erakarrita bezala, han joan ginen agertzen ordu-biak aldera. Dena behar bezala zihoan, Xanti, Imanol eta Faustino anfitrioi-antolatzaile lanak egiten, xehe-tasun guztietaz arduratzen, jendea integratuta sentitu zedin. Gainontzekoak ohoreak egitera eta ondo pasatzera joan ginen. Gehienok lehendik elkar ezagutzen genuenez, aurkezpenak eta bazter batera utzi eta entremes eta ardo ugari zegoen mahai baten inguruan jarri ginen berriketan. Lehenengo minutuak, talderik talde elkar agurtuz, falta zirenetaz galdezka, "in mente" ditugun proiektuei buruz hitz egiten, egindako lanagatik zorionak ematen [askok eskertu genien Ignacio Rekalde eta Iñigo Ugarteri Cassidei buruz egin zuten lana oparitu zigutelako (RECALDE IRURZUN, J. I. & UGARTE SAN VICENTE, I, 2005. Los Cassidinae de Navarra y la Comunidad Autónoma Vasca: Aproximación faunística y corológica (Coleoptera, Chrysomelidae). Heteropterus Revista de Entomología, 5: 65-96)], etab. pasa genituen.

Entremesak sagardo erara jarritako txorizo bandeja batzuekin bukatu ziren. Bazkaltzen hasteko garaia zen. Ia "erdi janda" eta "franko edanda" jarri ginen mahai inguruan eserita. Zegoen giro ederra mahaia zerbitzatzeko izan zituzten lanak ongi islatzen dute. Benetan zaila izan zen bazkaltzeko zer zegoen guri adieraztea. Ez jatetxeko arduradunek gaitasunik ez zutelako (benetan atseginak eta arretatsuak) baizik eta bazkaldarren arreta faltagatik. Entremes batzuk jan eta noizik eta behin ikusten diren lagunez inguratuta bazaude oso zaila egiten baita horretatik aparteko gauzetan arreta jartzea.

Dena dela, eta Ugaldetxoko jabeen pazientziari esker, azkenean bazkaldar bakoitzak eskatu zituen lehenengo eta bigarrenengo platera eta postrea. Bazkaria, lehengo urtean bezala: etxekoa, zaporetsua, ugaría, era askotarikoa, oso ongi prestatua, hobeto zer-

En el restaurante permanecían de alguna manera las buenas sensaciones de la reunión celebrada un año antes y, como atraídos por ellas, fuimos apareciendo alrededor de las 14:00 horas. Todo fluía de manera natural, Xanti, Imanol y Faustino ejerciendo de anfitriones-organizadores, preocupados por los detalles, porque todo el mundo se sintiera integrado. El resto, bueno el resto fuimos a hacerles los honores y a disfrutar. Aprovechando que la mayoría de los asistentes ya nos conocíamos, prescindimos de los formalismos previos y empezamos a charlar alrededor de una mesa con entremeses y vino abundante. De grupo en grupo y saludándonos todos, fueron pasando los primeros minutos entre preguntas sobre los ausentes, proyectos "in mente", enhorabuenas por trabajos realizados [muchos agradecemos a Ignacio Rekalde y a Iñigo Ugarte el regalo de su trabajo sobre las Cassidas (RECALDE IRURZUN, J. I. & UGARTE SAN VICENTE, I, 2005. Los Cassidinae de Navarra y la Comunidad Autónoma Vasca: Aproximación faunística y corológica (Coleoptera, Chrysomelidae). Heteropterus Revista de Entomología, 5: 65-96)], etc.

Los entremeses se cerraron con unas fuentes de chorizo a la sidra realmente delicioso, que nos indicaron que ya era hora de empezar a comer. Casi "medio comidos" y "abundantemente bebidos" nos sentamos a la mesa. Del ambiente reinante dan buena fe los problemas tenidos para servirnos la comida. Fue realmente dificultoso dar a conocer la carta disponible. No por la impericia de los dueños del restaurante (amables y diligentes en extremo) sino por la falta de atención de los comensales. Después de haber tomado unos entremeses y estando rodeado de amigos a los que ves de pascuas a ramos se hace difícil estar atento a asuntos ajenos.

De cualquier forma y gracias a la infinita paciencia de los dueños del Ugaldetxo, al final se logró que cada comensal prestara un poco de atención para pedir un primer plato, un segundo y postre. La comida, en la línea del año anterior: casera, sabrosa, abundante,

bitzatua eta gainera merkea.

Aurten hau idazten duena "mariposero"-en ondoan eserita egon zen. Hau, zuek uzten badidazue esaten dut, eta inolako kutsurik gabe. Aitortu beharra daukat lepidopteroak ez direla entomologian gehien interesatzen zaizkidanak eta gai horretan benetan ezjakina naizela, baina eskarmentu handiko lepidoptero hartzailez inguratuta eta hauek kontaktzen dituzten kontuak entzunda, norbera ere gaian inplikatu egiten da eta azkenean hego ezkatadunak dituzten intsektu hauek erakarri egiten dute.

Manuel Aguirresarobe eta Fernando Carasak lan hauetan duten beteranotasunetik begiratzan digute eta, urteetan zehar eskaini duten denborarekin eta irmotasunarekin aurrera joateko indarra eta etsenplua ematen digute, entomologiak zer suposatzen duen pentsatzeko garaian. Oso atsegina izan zen ikustea zer arretarekin adierazten zituzten beraien aurkikuntzak, lanak, gero-rako asmoak entzutea. Horrelako pertsonak ikusita eta entzunda oso erraza da ulertzea nola jarraitzen duen aurrera entomologiak, laguntza instituzionalik jasotzen ez badu ere. Animo lagunak! Zuen ibilbideak aurrera egitera bultzatzen gaitu zalantzak eta adorerik ezak hartzen gaituenean.

Ezin dugu esan gabe utzi Ismael Sarabia eta Juan Antonio Sotok abileziaz kontaktu zizkiguten Hego Amerikan eta Afrikan izandako esperientzia entomologikoak. Holografi animatuak izan baliran kontaktzen zizkiguten sekuentziak mahai inguruan, non oihanaren iluntasunean eta bakaradadean aurkitzen ziren fulgoridoetan espezializatutako entomologoekin, argi tranpa dena estaltzen zuten esfingido lainoekin edo argi tranpara iritsi baino lehenago lurrera erotzen ziren *Titanus giganteus* boteretsuekin, linterna eskuan eta elitro azpian dituzten mintzezko hegoekin egiten zuten soinuarekin gidatuta nola biltzen ziren.

Mahaitik altxa eta gero Carles Hernando, Pedro Aguilera eta Ignacio Riberarekin egon

variada, bien elaborada, mejor servida y, además, barata.

Este año el que escribe estas líneas estuvo sentado en el grupo de los "mariposeros". Dicho ello si se me permite la expresión y si ningún matiz. He de confesar que los lepidópteros no son lo que más me interesa de la entomología y que soy un perfecto ignorante en la materia; pero, rodeado de veteranos lepidopterólogos que cuentan sus experiencias, uno acaba implicándose en el asunto y sintiéndose atraído por esos insectos de alas escamosas.

Manuel Aguirresarobe y Fernando Carasa nos contemplaban desde su veteranía en estas lides y, con su perseverancia y dedicación mantenida a lo largo de años, nos animaban y nos daban ejemplo de lo que supone la entomología. Resultó muy grato ver con qué interés nos daban cuenta de sus hallazgos, de sus trabajos, de sus intereses para el futuro. Viéndoles y oyéndoles es más fácil entender porque la entomología sigue manteniéndose a pesar del escaso apoyo institucional. Animo amigos. Vuestra trayectoria nos ayuda a superar los momentos de duda y desánimo.

Cómo no mencionar las experiencias entomológicas en Sudamérica y África vividas y, lo que es mejor, hábilmente contadas por Ismael Sarabia y Juan Antonio Soto. Cual holografías animadas se sucedían sobre la mesa secuencias en las que los narradores se topaban en la oscuridad y soledad de jungla con entomólogos especializados en fulgóridos, nubes de esfingidos que cubrían por completo la tela de la trampa de luz, o los poderosos *Titanus giganteus*, que caían torpemente al suelo metros antes de alcanzar la trampa de luz y siendo necesario localizarlos linterna en mano y guiados por el ruido que hacían al plegar las alas membranosas bajo sus élitros.

Ya después de la sobremesa puede departir un rato que se me hizo cortísimo, con Carles Hernando, Pedro Aguilera e Ignacio Ribera y volver así a mi espacio natural: los coléopte-

nintzen hizketan eta horrela bueltatu nintzen nire benetako natur gunera: koleopteroetara. Proiektuak, agintzariak eta zorionak Carlesi, zeinak, lehengo urtean aurreneko aldiz bazkari hau egin genuenean egindako ibilaldian espezie berri bat aurkitzeko zortea izan zuena: *Mayetia amicorum* Hernando, 2005 [HERNANDO, C., 2005. *Mayetia* (s. str.) *amicorum* sp. nov. del País Vasco (norte de la Península Ibérica) (Coleoptera, Staphilinidae: Pselaphina). Heteropterus Revista de Entomología, 5: 27-31.]. Ea aurtengoa ere hain emankorra suertatzen zai-zuen! 18:30ak aldera etxera buelta. Ezin dut utzi adierazi gabe, zer ondo pasa genuen etxerako bueltan, nire lagun Iñaki Alonsok eta hau idazten duenak, bazkarian igarotako unek gogoratuz eta datozen urteetan horrelako momentu gehiago izango direnaren esperantza eta gogoarekin.

Agian deformazioagatik, edo justua delako soilik, idatzi honen azken lerroak eskerrak emateko izango dira: lehenengo Xanti, Imanol eta Faustineri eta, haien izenean, gertaera gastroentomologiko hau erraztu zutenei eta aurrera atera zedin eskuzabal-tasunez elkarlana egin zutenei; eta bigarren lekuan Ugaldetxon elkartu ginen guztioi, egindako ahaleginarengatik eta sortutako giro ederrarengatik. Aipamen berezi bat Ignacio Riberari eta Ali Cieslak-i, zeintzuk bere semetxo Bernatekin etorri ziren. Horiek ikusita, nire alabak txikiak zireneko garaia etorri zait burura eta zein zaila zen hauekin alde batetik bestera mugitzea.

Eskerrik asko. Eskerrik asko denoi eta beste bat arte. Laster izatea espero dugu. Agur bero bat.



ros. Proyectos, promesas y enhorabuena para Carles, quien, entre el material recogido el año anterior durante la expedición para asistir a la primera comida tuvo la fortuna de encontrar una nueva especie: *Mayetia amicorum* Hernando, 2005 [HERNANDO, C., 2005. *Mayetia* (s. str.) *amicorum* sp. nov. del País Vasco (norte de la Península Ibérica) (Coleoptera, Staphilinidae: Pselaphina). Heteropterus Revista de Entomología, 5: 27-31.]. Ojalá este año os resulte tan fructífera la visita a tierras guipuzcoanas. Alrededor de las 18:30, vuelta a casa. No puedo evitar manifestar la satisfacción que vivimos mi amigo Iñaki Alonso y el que esto escribe, durante el camino de vuelta, reviviendo durante el viaje de vuelta los momentos pasados en la comida y la esperanza y el deseo de que años venideros tengamos la ocasión de compartir nuevos momentos similares.

Quizás por deformación, o porque sencillamente es lo justo, las últimas líneas de este escrito serán de agradecimiento: en primer lugar a Xanti, Imanol y Faustino y, en su nombre, a todos los que propiciaron este segundo evento gastroentomológico y colaboraron desinteresadamente para que llegara a buen puerto; y en segundo lugar a todos los que nos reunimos en el Ugaldetxo, por el esfuerzo realizado y por el buen ambiente generado. Mención especial para Ignacio Ribera y Ali Cieslak, quienes vinieron acompañados de su hijo Bernat. Viéndolos, recordé los tiempos en que mis hijas eran aún pequeñas y lo dificultoso que era moverse con ellas.

Gracias. Gracias a todos y hasta la próxima ocasión, que esperemos llegue pronto. Un saludo.

## Restaurante **UGALDET XO** Jatetxea

Ereñozu auzoa - Tel.: 943 55 02 40  
20128 **HERNANI** (Gipuzkoa)

COLEOPTERA

SILPHIDAE

*Thanatophilus rugosus*

(Linnaeus, 1761)



Neurria: 9-12 mm.

Helduak maiatzetik urria agertzen dira.

Beltz disdiratsua.

Oso azal irregularreko pronotoa, 6 hildo leun eta ildoarteko bikortsuak nahastezina egiten dute.

Nekrofago zorrotza denez, soilik hildako edozein neurritako animaliez elikatzen da.

Badirudi espezie hau 500 metrotik gora agertzen dela. Zuhaitz gabeko leku garbiak gustatzen zaizkio.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 9-12 mm.

Aparece de mayo a octubre.

De color negro brillante.

Pronoto con superficie muy irregular, seis estrías lisas e interestrias granuladas que lo hacen inconfundible.

Necrófago estricto que se alimenta de cadáveres de cualquier tamaño.

Parece ser que esta especie aparece a partir de los 500 m. de altitud. Le gustan los sitios despejados, sin arbolado.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

SILPHIDAE

*Ablattaria subtriangula*

Reitter, 1905



Neurria: 13-16 mm.

Urte guztian aurki daiteke.

Beltz disdiratsua. Muturretik hasita beheraino handiagotuz doazen hamaika artejoz osatutako antenak dituzte. Pronotoak hiruki itxura du gutxi gora-behera. Saihets-hezurrik gabeko elitro obalatuak.

Barrazkiloak janez elikatzen da.

Silfido espezie hau Iberiar Penintsulako endemikoa da eta Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan zabaldua dago.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 13-16 mm.

Se puede encontrar durante todo el año.

De color negro brillante. Antenas de once artejos, progresivamente engrosados de la base hacia el ápice. Pronoto más o menos de forma triangular. Élitros ovalados sin costillas.

Se alimenta de caracoles.

Esta especie de sílfido es endémica de la Península Ibérica y está bien repartida por Gipuzkoa, Bizkaia, Áraaba y Nafarroa.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

SILPHIDAE

*Phosphuga atrata*

Linnaeus, 1758

Neurria: 10-14 mm.

Urte guztian aurki daitezke.

Beltz disdiratsua. Elitroetan ondo nabarmendutako hiru sahiets-hezur ditu..

Ornogabe txikiz elikatzen da, batez ere, barraskiloak janez. Harrapakinaren gainera oldartzen dira hozka eginez eta litzua ziztatuz, eta horrek harrapakinaren haragia partzialki liseritzen laguntzen dio. Hil ondoren, maskor barruan sartu eta dena irensten du.

Europa osoan zabaldua dago.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 10-14 mm.

Se puede encontrar durante todo el año.

De color negro brillante. Élitros con tres costillas muy marcadas.

Se alimenta de pequeños invertebrados, principalmente caracoles. Se abalanzan sobre la presa mordiénola e inyectándola un líquido salivar que sirve para digerir parcialmente la carne de la presa. Después que ha muerto penetra en la concha y termina de devorarla.

Está distribuida por toda Europa.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

SILPHIDAE

*Silpha tristis*

Illiger, 1798

Neurria: 13-15 mm.

la urte guztian aurki daiteke, baina batez ere udaberrian eta udaran.

Beltza. Puntuación Pronotoko puntu banaketa trinkoa du. Hiru sahiets-hezurrez nabarmendutako elitroak.

Batez ere hartzitutako sustantziek edo ustel-tzen ari direnek erakartzen dute.

Iberiar penintsulan oso zabaldua dago.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 13-15 mm.

Aparece prácticamente durante todo el año, pero más abundante en primavera y verano.

De color negro. Puntuación del pronoto densa. Élitros marcados con tres costillas.

Es atraída principalmente por la presencia de sustancias fermentadas o en proceso de descomposición.

Está muy repartida por toda la Península Ibérica

Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

*Curculio glandium*

Marsham, 1802



Neurria: 4-8 mm.

Helduak apiriletik abuztura agertzen dira.

Arre kolorekoa, ezkata argiagoekin. *C. elephas*-en antzekoa.

Haritz ezkurrez elikatzen da. Emeak muturrarekin, ezkurraren barruan, zulo bat egin ondoren han jartzen du arrautza. Orokorrean ezkur bakoitzean arrautza bat jartzen dute, oso arraroa da ezkur batean bi arrautza aurkitzea.

Helduak argi artifizialak erakartzen ditu.

Gipuzkoan arrunta da.

Tamaño: 4-8 mm.

Aparece de abril a agosto.

Es de color pardo con escamas más claras. Parecido a *C. elephas*.

Se alimenta de bellotas de roble. La hembra hace un agujero con el rostro dentro de la bellota y deposita el huevo en su interior. Generalmente pone un solo huevo en cada fruto, raramente dos.

Los adultos se sienten atraídos por la luz artificial.

Es común en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

*Sphenophorus striatopunctatus*

(Goeze, 1777)



Neurria: 6,5-9 mm.

Udaberrian udazkenean agertzen dira.

Beltza da.

Larba *Scirpus lacustris*-en sustraietan bizi ohia da, eraldatzea landarearen zurtoinarean barruan egiten du eta heldua izatera udaberrian iristen da. Hainbat hilabete bizi ondoren, goroldio artean edo usteltzen ari diren sustantzia organiko artean inbertatzen dute.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 6,5-9 mm.

Aparece de primavera a otoño.

De color negro.

La larva vive en la base de las raíces de *Scirpus lacustris*. La transformación se efectúa en el interior del tallo de la planta. El adulto aparece en primavera. Vive varios meses e inverna refugiado entre musgo o sustancias orgánicas en descomposición.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

*Larinus planus*

(Fabricius, 1792)

Neurria: 5-7 mm.

Helduak udaberria-udazkenean agertzen dira. Beltza, pubeszentzia fin batez estalia. Elitroak irregularki banatutako orban grisekin.

Larba konposatutako hainbat landareetan bizi eta itxuraldatzen da: *Carduus tenuiflorus*, *C. acanthoides*, *C. crispus*, *Centaurea scabiosa*, *Cirsium arvense*, *C. palustre*, *C. oleraceum*, *C. lanceolatum*, *C. anglicum*, *Carlina vulgaris*, etab.

Orokorrean helduak direlarik inbarnatzen dute, baina larba batzuk ez dira itxuraldatzen otsaila edo martxoa arte.

Gipuzkon oso urria da.

Tamaño: 5-7 mm.

Aparecen de primavera a otoño.

De color negro, cubierto de una fina pubescencia. Élitros con pequeñas manchas grises repartidas irregularmente.

La larva vive y se transforma sobre diversas compuestas: *Carduus tenuiflorus*, *C. acanthoides*, *C. crispus*, *Centaurea scabiosa*, *Cirsium arvense*, *C. palustre*, *C. oleraceum*, *C. lanceolatum*, *C. anglicum*, *Carlina vulgaris*, etc.

Generalmente invernan en estado adulto, pero algunas larvas no se transforman hasta febrero-marzo.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

*Neliocarus sus*

Stephens, 1831

Neurria: 4-6 mm.

Helduak apiriletik irailera agertzen dira.

Beltz disdiratsua, urre-koloreko disdirekin edo nakar-itxureko disdirekin. Borobil antzekoak. Elitroak puntu lodiz jositako ilaraz beteta daude.

Heldua erikazeetan bizi ohi da: *Calluna vulgaris*, *Erica cinerea*, *E. vagans*, *E. scoparia*, etab. Batez ere, txillar-etan aurkitu dugu (*Erica sp.*).

Espezie honetako barietate desberdinak deskribatu dira.

Gipuzkoan oso arrunta da.

Tamaño: 4-6 mm.

Aparece de abril a septiembre.

Negro brillante con reflejos dorados o nacarados. De formas más bien redondeadas. Los élitros están llenos de hileras de gruesos puntos.

El adulto vive sobre ericáceas: *Calluna vulgaris*, *Erica cinerea*, *E. vagans*, *E. scoparia*, etc. Lo hemos recolectado principalmente sobre brezos (*Erica sp.*).

Se han descrito diversas variedades de esta especie.

Es muy común en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

*Sitona regensteinensis*

(Herbst, 1794)

Neurria: 3-5,5 mm.

Apiriletik irailera agertzen dira.

Pronotoa erdian eta bi bazterretan arrasto argiagoeekin. Elitroak,irregulararki banatutako ilez osatuak, arrastoen tankera hartuz, batzuetan.

Aztertu ditugun bibliografien arabera, helduak hainbat fabazeatan bizi ohi dira, adibidez: *Ulex*, *Cytisus*, *Genista*, etab. Guk batez ere *Cytisus scoparius*-etan aurkitu ditugu.

Gipuzkoa arrunta da.



Tamaño: 3-5,5 mm.

Aparece de abril a septiembre.

Pronoto con una banda central y dos laterales claras. Élitros con pilosidad irregular, a veces formando bandas.

Según la bibliografía consultada, el adulto vive sobre diversas fabáceas: *Ulex*, *Cytisus*, *Genista*, etc. Nosotros hemos recolectado principalmente sobre *Cytisus scoparius*.

Es común en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

*Apion haematodes*

Kirby, 1808

Neurria: 2,3-2,5 mm.

Maiatzetik urrira agertzen dira.

Kurkulionido txiki hau gorri laranja da. Emearen muturra arrarena baino zerbait luzeagoa da.

Larba *Rumex* generoko hainbat landaretan bizi ohi da: *R. acetosella*, *R. patientia*, *R. acetosa*, etab. Hosto-txortonetan eta nerbioetan hanturak sortzen ditu.

Heldua delarik inbernatzten du.

Gipuzkoan oso urria da.



Tamaño: 2,3-2,5 mm.

Aparece de mayo a octubre.

Este pequeño curculiónido es de color rojo anaranjado. El rostro de la hembra es algo más largo que en el macho.

La larva vive sobre diversas plantas del género *Rumex*: *R. acetosella*, *R. patientia*, *R. acetosa*, etc. Produce un hinchazón en los nervios y el peciolo de las hojas

Inverna como adulto.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

*Stereonychus fraxini*

(DeGeer, 1775)

Neurria: 2,5-3 mm.

Apiriletik uztailera agertzen dira.

Lizarretan bizi ohi dira (*Fraxinus excelsior*).

Hostoetan egiten dute errunaldia apirilean. Larbek hosto hauen beheko aldea bakarrik karraskatzen dute. 10-12 egun behar ditu bilakatzen. Hostoetan itsatsitako anbar koloreko kapulu obalatuak egiten du. Ninfosiak 8-10 egun irauten du. Heldua zulo borobil bat eginda ateratzen da kanpora. Apiriletik ekainera hiru belaunaldi izatera iritsi daitezke.

